



'Hernani 2020: denon begietatik' bideoa aurkeztuko dute gaur

HERNANI 2020 ekimena jarri du martxan Udalak. Ekimen honen helburua da, Udala eta herritarren artean, etorkizunean nahi den herria irudikatzea; nahi den horretara iristeko bidean eman beharreko urratsak definitu nahi dituzte gero. Ekimen horren barruan, elkarrizketak egin dizkiete herritarrei eta hainbat ordezkariari, eta bideo bat osatu dute, *Hernani 2020: denon begietatik* izenburua duena. Bideoa gaur aurkeztuko dute Biterin. Gerturatuz gero bideoa eskuratzeko aukera izango da. /3

500 herritar bilduko dira gaur Gabonetako kontzertua emateko

GABONETAKO kontzertua izango da gaur San Joan Bataiatzailearen parrokiaren, Kantuz abesbatzak antolatuta. Urtero herriko ikastetxeak, abesbatzak eta musikariak elkarrekin egiten dira kontzertu hau emateko. Inmaculada ikastetxea, Elizatxo ikastola, Urumea ikastola, Langile ikastola, Hernani Musika Eskola, Doinu Zale Musika Eskola, Parrokiko korua, Ozenki abesbatza eta Kantuz abesbatzak hartuko dute parte. Arratsaldeko 20:00etan hasita. ||

❖ UDALA

Plenoa gaur

Plenoa izango da gaur udalletxean. Besteak beste honako gaiak aztertuko dituzte: ikuskizunetarako sarrerren prezioa; Euskara Plana; Play dantzalekua dagoen lur zatia-ri buruzko hitzarmena; Kirol Patronatua eta kirol klubaren arteko lankidetzaren hitzarmena; herriko hainbat kaleetara sartzeko kontrol sistema; eta torturaren aurkako aurkeztutako mozioa. Gaur 18:00etan. ||

❖ KALE MOZKETAK

Atzietas kalea itxita

Astelehenez gero Atzietas kalea itxita izan da kotxeentzat, goizeko 07:30etatik 14:00etara. Horrela jarraituko du bihar arte. Kanean sistema bat jartzen ari dira kotxeen sarrera kontrolatzeko. ||

Apeaderoako igogailuko lanak hasiko dira gaur

Gaur hasiko dira Apeaderoako igogailu berriko lanekin. Hori dela eta Apeaderotik haur parkera dijoan oinezkoen bidea itxiko dute. Eskailerrak erabili ahal izango dira. ||



Iñaki Ubiriarekin sukaldatzen ikasten ari dira Gure Etxolan

GABONETAKO sukaldaritza ikastaroarekin jarraituko dute gaur Gure Etxola emakume zentroan. Iñaki Ubiria sukaldaria etorri da aurten ere, eta sukalderako bere sekretu guztiak erakusten ari zaizkie Gure Etxolara gerturatu direnei. Urteik urtera plater goxoagoak prestatzen ari dira, atzokoan esaterako, Gabonetako bazkari eta afarietan jateko moduko postreak prestatzeari ekin zion. Ikastaroak gaur izango du bigarren saioa, eta elkarteko bazkideak direnak eta ez direnak daude gonbidatuta. Gaur arratsaldeko 17:00etan, Gure Etxolan. ||

GAUR KRONIKAN

EAJ-PNVren prentsa oharra /2

Gabonetako argien inguruko galdeketa /2

Wukroren aldeko artelan erakusketa /7

Jasota Bezala /8

Aurtengo gabonetan bidaiak oparitu !!

ASTURIAS

HOTELA GIJONEN
- ASTEBURUKO EGONALDIA + GOSARIA
- LARUNBATEKO AFARIA 88€ HELDUAK
- AQUARIUMEKO SARRERA 40€ HAURRAK

HOTEL PEÑA SANTA
- 2 GAU GOSARIAREKIN 41,05€
- MUSEO JURASICO-RAKO SARRERA

KANTABRIA

PARQUE DE ALCEDA
- 2 GAU + MP + SPA 150,90€

HOTEL PALACIO GUEVARA
- 2 GAU-GOSARIA-AFARI BEREZI BAT 101€

KANARIAR IRLAK

LANZAROTE
- APIRILAK 9TIK-16RA (ASTE SANTUA)
- 2 HELDU + 1 HAUR - MP 1.310€
TASAK BARNE

HERNANI BIDAIAK

Urbieta, 6
943 33 00 49
hernanib@teletel.es
www.hernanibidaiak.com



TRIPA BETE NAHI?
PINTXOK, RAZIOK, ENTZALDOK,
PLATER KOMBINATIAK...
ZATOZ DASTATZERA!!

Egunero Menuak 8,50 €

Kardaberaz, 11 Tf: 943555724

MASUSTA EKODENDA



Eguberri on guztioi!

KARDABERAZ, 43 - HERNANI
Tel.: 943 55 57 10

'Hernani 2020: denon begietatik' bideoa aurkeztu eta banatuko dute gaur Biterin

Bideoan hainbat herritarrei egindako elkarrizketak agertzen dira. Gaur arratsaldeko 20:00etan, Biteri kultur etxean.

HERRITARREK etorkizunetan nolako herria amesten duten, galdera horri erantzunez, hainbat elkarrizketa egin dira azken asteetan. Elkarrizketa horiekin bideo bat osatu dute, *Hernani 2020: denon begietatik* izenburua duena. Aurkezpena gaur izango da, arratsaldeko 20:00etan, Biterin, eta herritar guztiak daude gonbidatuta.



Hernani 2020 ekimeneko bilera bat, euskeraren ingurukoa.

Elkarrizketak

Bideoan hainbat herritarrei egindako elkarrizketak ikusi ahal izango dira. Denek ere galdera bati erantzun behar izan diote: nolako Hernani amesten duzu etorkizunetan?. Elkarrizketa batzuk kalean jendea animatu ahala egin dituzte. Beste elkarrizketa batzuk ordea, alde zurretik hitzartu dituzte, esate baterako: Udal Berdintasun Arloko teknikariari, Ingurugiro teknikariari, herriko parrokoari eta gurasoei egindako elkarrizketak, besteak beste.

Emanaldia bukatzean do-

kumentalak banatu egingo dituzte. Banatuko dituzten bideo hauetan Hernani 2020 ekimenari buruzko informazio osatuagoa izango da.

Bideo honekin Udalak lortu nahi du herritarrei ezagutaraztea Hernani 2020 ekimena zer den eta ekimenaren lan metodologia.

Hernani 2020

Hernani 2020 Udalak martxan jarritako ekimena da. Hernani 2020 lan egiteko modu bat da, eta helburua da, epe luzera begiratzea, eta nahi den horretara iristeko,

bidean egin beharreko urratsak definitzea, urratsak modu isolatuan eta bakarka eman beharrean. Lan metodologia hau da Hernani 2020 ekimenaren ardatza, baina badu beste ardatz bat ere: parte hartzea, hau da, herritarrek iritzia jasotzea.

Ekimen honen barruan herritarrekin eta taldeekin hiru bilera egin dira. Udalak, nonbaitetik hastearren, bi gai zehaztu zituen: inmigrazioa eta euskara. Bilera horietako ondorio nagusiak gaur banatuko diren bideoan agertzen dira. ||

EAJ-PNV

«Nola liteke Gobernu Taldeak bi urtetan soldaten %10,2 igotzea eta talde eta kolektiboen diru laguntzak izoztea?»

ANDONI Amonarraiz EAJ-PNVko bozeramaileak, prentsa ohar batean bidez, hainbat galdera luzatu dizkio Gobernu Taldeari. Gobernu Taldeak duela gutxi aurkeztu du 2009ko Udal Aurrekontuen proposamena, eta orain, oposizio alderdiek alegazioak aurkezteko aukera izango dute.

Soldaten igoera

Andoni Amonarraizek galdetu du ia nola den posible «ezkerrekoa eta solidarioa den Gobernu Talde batek bere buruari soldata %10,2 igotzea (%5,2 2008an eta %5 2009an) eta talde eta kolektiboen diru laguntzak izoztea?». Honekin lotuta Gobernu Taldearen bi asesoreen soldata aipatu ditu: «asesore juridikoaren soldata %19,5 igo da (71.566 euro irabazten ditu urtean, asteen 20 orduko kontratuarekin); eta hirigintzako asesorearen soldata %34 igo da (66.973 euro irabazten ditu urtean, asteen 17 orduko kontratutarekin)».

EAJ-PNVko bozeramaileak

galdetu du ia nola den posible «gehiegikeria hauei aurre egiteko 980.000 euroko prestamoa eskatzea».

Etxez etxeko laguntza

Gobernu Taldea etxeko laguntza zerbitzuaz ahaztu dela irizten dio Andoni Amonarraizek: «nola da posible etxeko laguntza zerbitzuaz eta zerbitzua behar duten pertsonetaz ahaztea? eta proposatzea zerbitzu honek eman beharreko ordu kopurua murriztea eta horren ondorioz zerbitzua jasoko duten pertsonen kopurua jaitea?».

Bukatzean, aipatu du Gobernu Taldeko kideek «hobe luketela asesore eta politikariaren soldata jaitea, oposizioen ordezkaririk politikokoekin egin duten bezala, eta extra horiek herri honetan behar gehien duten kolektiboentzako izango balira, izan ere, aurrekontuak onartzen badira, extra horiek beren poltsikoetan sartuko baitituzte». ||

Gabonetako argien inguruan, herritarrek duten iritzia jaso nahi du Udalak

2009ko Gabonetan nola jokatu erabakitzeke, garai honetan jartzen diren argien inguruko iritzia jaso nahi ditu Udalak.

Iritziak urtarrilaren 11a bitartean eman daitezke, horretarako jarritako buzoietan edo www.hernani.net webgunean.

GABONEN bueltan kalean argiak jartzen ditu Udalak. Datorren urtean jarri beharreko argi kopurua zehazteko eta herritarrek gaiaren inguruan duten iritzia jakiteko ekimena jarri du martxan

Udalak. Ekimen honen bidez, herritarren iritzia jaso nahi ditu. Proposamenak eta iritzia urtarrilaren 11 bitartean eman ahal izango dira eta bi bide daude. Aukera bat da herrian barrena jarri dituzten

buzoi berdeetan aurrez eskuratutako paperak sartzea. Buzoiak udaletxe sarreran, Biteriko sarreran eta kiroldegiko sarreran daude. Iritzia emateko orriak ere bertan eskatu behar dira.

Beste bidea da www.hernani.net webgunearen bidez ematea iritzia.

Argien kostua

Udalak hainbat datu eman ditu Gabonetako argien inguru-

an. Azaldu duenez, Gabonetako argiak jartzea honako kostua du: argiak alokatzea 19.000 euro; argiak jartzeko enpresa kontratatzea 23.000 euro, argi kontsumoa 1.000 euro. Guztira 43.000 euro. ||


PINEDA
HARATEGIA
ziurtatuako produktuak
Ondo pasa Santo Tomas eguna!!
Eguberri on!!!
Kardaberaz, 32 943 55 16 43

JOSU ALKORTA
harategia
Ondo pasa Santo Tomas eguna!
eta
Eguberri on!!!
Nafar kalea 11 Tel.: 943 551 681

Iñaki Etxaniz
KALITATEA
harategia
SANTO TOMAS
EGUNA ONDO PASA !!!
EGUBERRI ON !!!
TEL.: 943 55 12 47
NAGUSIA, 12

GARBIN
HARATEGIA
Ondo pasa Santo Tomas eguna!!
Kardaberaz, 38 Tel.: 943 552 393

IKASLEEN TXOKOA - Inmaculada Ikastetxea



Karitateko alabek 124 urte bete dituzte Hernanin / II

JOSU AZABAL, UXUE PEREZ ETA AMAIUR TRANCHE

VITO ROGADO - AKTOREA.
«KALEAN JENDEAK NIRE IZENA AINHOA
DELA PENTSATZEN DU, TELESAILAN BEZALA» / III
AINHOA GONZALEZ ETA CHRISTIAN GRAJERAS



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK

IV / BERTATIK BERTARA
IÑAKI ARREGI



IRITZIA
PIJAMA MARRADUNEZ
JANTZITAKO MUTIKOA / IV
DAVID RAMOS MORENO



EGILEEN ARGAZKIA / IV

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

INMACULADA IKASTETXEA

Karitateko alabek 124 urte bete dituzte Hernanin

Inmaculada ikastetxea Hernaniko irakaskuntza gune zaharrena da. Ezagutzen dezagun ikastetxearen bilakaera

AINHOA GONZALEZ,
CHRISTIAN GRAJERAS

GURE ikastetxea gaur egun Hernaniko irakaskuntza gune zaharrena da. 1883. urtean zehar Sor Casimira Astiz Hernanira etorri zen eta kontratu bat sinatu zuen Karitateko Alabak Hernanira lana egitera etorri ahal izateko.

1884ko apirilaren 29an lehen Karitateko Alabak iritsi ziren Hernanira. Hasiera batean, umezurtz, agure eta gaixoei laguntza ematen hasi ziren. Laguntza eskatzen zuten pertsonen kopurua handitzen joan zen, 50 pertsonatara iritsi arte. Konsulta bat ere bazuten, eguneko 60 pertsona hartzen zituena.

1890ean Karitateko Alabek alfabetizazio klaseak emateko beharra sumatu zuten eta horrela, gizarte ongintza albo batera utzi gabe, lan berri bat hasi zuten: eskolak ematea. Hasiera batean, baliabide eskasak zituzten, baina nola ahala moldatzen ziren klaseak gauetan eta baita igandeetan ere emanez. Eskolaren ildoan jarraituz, 1895.



urtean *Familiako Gurasoen Elkarte*a sortu zen. Batzorde honek (lehendakari Juan Manuel Soroa zuena) Udaletxeari Ongintzatik gertu zegoen lurremuaren salmenta egiteko eskaera egin zion, irakaskuntzarako erabili ahal izateko. Orain Milagrosako parkinga den lekuan bi eraikin egin zituzten, bata haur hezkuntzarako eta bestea lehen hezkuntzarako. Irakaskuntzan lan egiten zuten

Alabek 2,50 pezeta irabazten zituzten hilean eta hauetatik 2 Ongintzara bideratzen zituzten. 1960ean haurtzaindegi bat sortu zuen INAS-ek (Instituto Nacional de Asistencia Social) *Zikuñagako Amako Haurtzaindegia* izenez ezagutu zena. Han 60 haur hartzen zituzten eta zuzendaria Sor Maria Luisa Diez zen.

Sortutako eskaria zela eta, 1962an eraikuntza berri baten beharra ikusi zuten eta horrela,

bost solairuko eraikin berria egin zen Txantxillako hegoaldean. Gaur egun, ikastetxean haurtzaindegia, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Erizain Laguntzailerako Heziketa Zikloa ditugu.

1983. urtean eraiki zuen udalak gaur egungo Zaharren Egoitza. Aurreko egoitza zaharra eratsi eta bertan lanean jarraitu zuten Karitate Alabek 2003. urtean azkenekoek utzi zuten arte. ■



VITO ROGADO - Aktorea.

«Kalean jendeak nire izena Ainhoa dela pentsatzen du, telesailean bezala»

VITO Rogado, Osinagan bizi den aktorea, behin baino gehiagotan ikusi izan dugu telebistan, 'Mi querido Klikowsky' telesailean. Bera eta bere aktore ibilbidea ezagutzeko elkarrizketa egin diogu.

Hernanin bizi zara, baina jaiotzez al zara hernaniarra?

Hemen bizi naiz, baina Donostian jaio nintzen denak bezala, (parrak), baina Errenteriakoa naiz. Hernanin bederatzi bat urte daramazkit. Hernanikoa sentitzen naiz.

Antzezle izateko ikasketarik egin duzu?

Bai, txikitatik hasi nintzen Errenterian, Ur antzerki taldearekin. 19 urterekin Madrilera joan nintzen ikastera. William Layton Antzerki laborategian 3 urtez egin nituen ikasketak.

CASTINGik egin duzu inoiz? Nolako izan zen esperientzia?

Bai, casting asko egin nituen eta izua sentitzen da, beti aproban jartzen gaituzte. Askok kostatzen da, naturala izan nahi duzunean ezin duzulako eta nerbioak indar gehiago dute.

Zein izan zen zure gurasoen jarrera zure zaletasunarekiko?

Nire gurasoek beti aske utzi naute, nire erabakia izan zen.

Denboraldi asko daramazkizu "Mi querido Klikowsky-n", nola lortu zenuen Ainhoaren papera?

Casting batengatik izan zen, bi proba egin nituen. Ainhoaren papera berez Miren Iburgurenentzat zen, baina Madriden lana eman zioten. Lehenengo proban zuzendari batekin egin nuen, bigarrenengoan bi zuzendariekin.

Nolakoak dira grabaketak?

Astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 16:00etatik gaueko 23:00etaraino izaten dira, Oiartzungo platoetan. Kapitulu bakoitza astebetean grabatzen da. Giroa oso ona da, denok denekin ondo moldatzen gara, batzuetan nerbioengatik arazo txikiak egoten diren arren. Barre asko egiten dugu.



Vito Rogado, udan, bere etxean ateratako argazkian.

Nor da ezagunagoa Vito ala Ainhoa?

Agian Ainhoa, baina Hernanin lagun asko ditut. Dena den kalean jendeak nire izena Ainhoa dela pentsatzen du.

Telebistan azaltzen zarenetik asko aldatu al da zure bizimodua?

Ez ezer ere ez. Bakarrik jende helduak kaletik Ainhoa deitzen didala; gai nontzean nire bizimodua berdina da.

Beste lanik egin duzu aurretik? Zer nahiago duzu, telebista ala antzerkia?

Bai, arropa dendatan eta zerbitzari. Antzerkia nahiago dut, zeren eta denbora gehiago duzu zure pertsonaia ikasteko eta lantzeko.

Beste proiekturen bat baduzu begibistan?

Datorren hilean Vaiven produkzioaren aurkeztutako antzezlan batean hasiko naiz, El club de las mujeres izenekoa

Bai, datorren hilabetean Vaiven produkzioak-ek aurkeztuko duen antzezlan batekin, *El club de las mujeres invisibles*.

Zer deritzozu egin diren euskal filmeei buruz?

Oso gutxi egiten dira, baina bi oso onak daude, "Aupa Etxebeste" eta "Kutxidazu bidea". II

Hitz batean:

- Jaiotze data? 1976ko urriaren 4a.
- Auzoa? Osinaga auzoa
- Hernaniko txoko bat? Ezkiaga pasealekua
- Zer duzu gustuko Hernanitik? Oso leku txikia dela eta giro handiarekin. Jendea oso atsegina da.
- Zer ez duzu gustuko? Zinema areto handi bat falta zaiola.
- Kirola egin edo telebista ikusi? Biak gustatzen zaizkit.

- Itsasoa ala mendia? Itsasoa.
- Hondartza bat? La Kontxa.
- Mendi bat? Ulia.
- Kolore bat? Berdea.
- Janari bat? Dilistak arrozarekin.
- Musika edo musikari bat? Jorge Drexler.
- Liburu bat? *Un libro abierto toda la noche* David Trueba.
- Film bat? *La vida rosa*.

33

zenbakia

ikasleen txokoa

Gipuzkoako Batzar Nagusiak bertatik bertara

IÑAKI ARREGI

EUSKADIKO Lurralde Historiko bakoitzak bere batzar edo parlamentu berezi eta zehatza du. Gipuzkoan berrogeita hamaika batzarkidez osatua dago eta egoitza Miramonen du. Azalera guztira 3.600 metro karratu dituen hiru solairuko kubo eraikina da. Eraikina Donostiako Teknologia Elkartegian dago, Foru Aldundiaren bete erakunde batzuekin batera, eta guztien artean 16.000 metro karratuko hiruki formako multzoa osatzen dute.

Batzarrak Ermandadeko kideek egiten zituzten bilerak ziren. Batzar hauek XIV. mendean sortu ziren noblei



Batzar Nagusien berri ematen duen autobusa duela gutxi izan da Hernanin.

aurre egiteko helburuarekin. Lehen bilera Getarian izan zen 1.397.urtean. Napoleonen politikarengatik Batzarrak ehun urtez desagertu ziren. Berrezarri zirenean Arrasaten izan zen lehen bilera, desagertu aurretik herri honi egokitzen zitzaizkion eta orden horri jarraitu nahi izan ziotelako.

Batzarrak nobleen kontra biltzen ziren, hauen bandukeria etengabea zelako. Hiribilduen eta herritarren arteko arazoak konpontzeaz Ermandadeak arduratzen ziren. Batzarrak hasieran, korrejidore batek, lehendakari aholkulari batek, prokuradore batek eta eskriba leial batek osatzen zituzten.

Udal hauteskundeekin batera egiten da bozketa, lau urtetik behin. Donostialdeak hamazazpi batzarkide aukeratzen ditu, Deba-Urolak hamalau, Bidasoa-Oiartzunek hamaika eta Oria-Goierri bederati.

Zereginak

Gipuzkoako Parlamentu edo Legebiltzar gisa dauzkaten zereginak :

- Araugintza ahalmena gauz atzea.
- Diputatu Nagusiak aukeratzea.
- Aurrekontuak eta Lurralde Historikokoak onestea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardura kontrolatu eta sustatu. II

Alearen egileak:



Inmaculada ikastetxeko ikasleak izan dira gaurko alearen egileak.

IRITZIA

Pijama marradunez jantzitako mutikoa

JHON Boyne irlandarra dugu liburu honen idazlea. Berak dioenez, liburu bereziki irakurle nerabee-tan pentsatuz idatzi zuen, batez ere, bere iloba Jaime buruan zuela. Hala ere, arrakasta handia lortu du helduen artean ere.

Liburu hau edonori aholkatze-ko garaian, hiru gauza azpimarratuko genituzke: lehenbizi, jorratzen duen gaia: liburu mutikoen adiskidetasunak bi munduren arteko mugak nola hausten dituen.

Bestalde ikuspuntua azpimarratuko genuke: helduen aurreiritzi eta faltsukeriak agerian uzten dituen haurren begirada.

Azkenik, istorioa kokatzen den garaia ere aipatu behar dugu: nazien menpe dagoen Alemania garai historiko interesgarria da irakurle askorentzat.

Ezaugarri hauek jendeari hain erakargarri zaion gaia azpimarratuz: bi haurren arteko adiskidetasuna. Brunok lagunari esaten dion bezala, «zu nire lagun onena zara, nire lagunik onena bitzita osorako».

David Ramos Moreno.

Herriko ikasle eta musikariak, denak elkarrekin, gaur Gabon Kanten Emanaldian

500 pertsona inguru izango dira kantari. Emanaldia arratsaldeko 20:00etan izango da, San Joan Bataiatzailearen Parrokian.

GABONEN bueltan herriko jende ugari biltzen duen kontzertua antolatzen du Kantuz abesbatzak. Aurtengoan ere urteetako ohiturari helduko diote eta herriko jende ugari bilduko da bertan kantatzera: aurreikusitakoaren arabera 500 lagun inguru. Tartean izango dira, Inmaculada ikastetxea, Elizatxo ikastola, Uru-mea ikastola, Langile ikastola, Hernani Musika Eskola, Doinu Zale Musika Eskola, Parrokiko korua, Ozenki abesbatza eta Kantuz abesbatza.

Kontzertuan Gabonetako abestiekin osatutako erreperitorioa eskainiko dute.

Herritarrek gustora entzuten dute kontzertua, eta horren seinale da eliza puntaraino betetzen dela.

Kontzertua arratsaldeko 20:00etan izango da, San Joan Bataiatzailearen parrokian. ||



❖ WUKROREN ALDEKO ARTELAN SALMENTA

Bihar izango da azken aukera artelanak erosteko

Bildutako dirua Etiopiako Wukro herrira bidaliko da, Angel Olanan misiolariak dituen proiektuak laguntzeko.

BIHAR bukatuko da Wukroren alde dirua biltzeko artelan erakusketa eta salmenta. Erakusketan herriko artista ezberdinek lanak jarri dituzte eta nahi izanez gero erosi ere egin daitezke. Jasotako dirua Wukro bidaliko dute, Angel Olanan misiolari hernaniarrak dituen

proiektuak laguntzeko.

Erakusketa arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara ikusi ahal izango da.

Bertako umeei laguntzeko proiektuak
Wukron hainbat proiektu ari da aurrera eramaten Angel Olanan, hainbat arlotan: de-

sertizazioa gelditzeko neurriak hartzen ari dira, prostituzioari aurre egiten saiatzen ari dira, bertako umeei jaten ematen diete, eta baita aterpea eta hezkuntza ere.

Antolatzaileek herritarrek animatu nahi dituzte ahal duten neurrian aportazioa egiteko. ||

❖ KONTZERTUA

Ruper Ordorikaren kontzertua larunbatean

Ruper Ordorika abeslariaren emanaldia izango da larunbatean Biteri kultur etxean. Sarrerak salgai daude Biteri kultur etxean, 6 euroren truke. Kontzertua gaueko 22:30etan hasiko da. ||

❖ KAXKO ELKARTEA

Asanblada gaur

Asanblada deitu du gaurko Kaxko elkarteak. Urteko balantzeaz, txotx denboraldiaz eta Zikuñagako papeleraz hitz egingo dute. 20:00etan, Biterin. ||

❖ ELKANO 17 EMAKUME ZENTROA

Sukaldaritza ikastaroa gaur Xalapartan

Elkano 17ko Emakume Zentrotako kideek sukaldaritza ikastaro batean hartuko dute parte. Gabonetako jaiak prestatzen irakatsiko dute Luis Irizarren eskolako sukaldariek. Gaur arratsaldeko 16:00etan, Xalaparta elkartearen. ||

❖ INMACULADA IKASTETXEA

Gabonetako jaialdia gaur

Inmaculada ikastetxean opor aurreko Gabonetako jaialdia ospatuko dute gaur. Ikasleek emanaldi ezberdinak eskainiko dituzte, guraso eta lagunen gozamenerako. Gaur 15:00etan, Biterin. ||

❖ ZINE KLUBA

'El baño de Papa' pelikula jarriko dute gaur

Abenduko azken zine klub saioa izango da gaur Biterin. *El baño de papa* pelikula jarriko dute. Pelikula Uruguayan kokatua dago 1988an. Melo izeneko herri batean Juan Pablo II-ren bisitaren zai daude. Bisitak jendetza ekarriko du, baina askoren helburua izango da bisita honen bueltan nola edo ahala negozioa egitea. Gaur gaueko 21:30etan, Biterin. ||

❖ OSIÑAGA AUZO ELKARTEA

Kuota kobratzera joango dira asteburuan

Asteburuan kuota kobratuko dute Osiñaga auzo elkarteko kideek. Etxez etxe ariko dira eta gogorazi dute urteko kuota 10 eurokoa dela. Kopuru horretatik, euro 1, Gabonetako Loterian jasoko dute ordaintzen dutenek. Horrekin batera, kuota ordaintzen dutenen artean, Gabonetako saski eder bat zozketatuko dute. Eskertuko dute, etxean izango ez direnek, kuota bizilagunari ematea. ||

❖ KIROLDEGIA

Puzgarri erraldoiak larunbateko ur jaietan

Larunbat goizean ur jaiak izango da kiroldegiko igerilekuan. Jaietan puzgarri erraldoiak izango dira. Parte hartzeko baldintza da igeri egiten jakitea. Jaiak dela eta igerilekua itxia izango da larunbat goizean. ||

MENDI LORE
ZURE LORADENDA HERNANIKAN

Dagoeneko gabonetarako...
...PREST!!

AKELENEA
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Koldo fina
ondo pasa gabonetan!

Oialume Bidea, 57 • 2015 Astigarraga
Tel 943 333 333

SANSONATEGI
Martindegi auzoa 13 - 943 33 15 72 - www.sansonategi.com

Abenduaren 20an afaria eta dantzaldia,
KARITZA taldearekin. Giro ederra!!
(Erreserbak aldeaz aurretik egitea eskertuko da: 943 33 15 72)

MENUA:
Iberiar konbinatuak
Porruz betetako hostorea
Zainzuri epelak
Lupia labean
Azpizuna lagungarriekin
Ardoa kulantza
Kafea, kopa, purua...eta dantzara!

Zatoz !!

J A T E T X

40 euro

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103 ● **FARMAZIAK** ● Egumez: **Gomez** Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● **Gauetz**: **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA ● **GAUR** Euria egingo du, baina indar gutxiagorekin. Elur maila 1.100-ean kokatuko da. Hego mende-baldeko haizea ibiliko da. Tenperaturek gora egingo dute. ● **BIHAR** Ez du erabat atertuko baina euri gutxiago egingo du. Tenperaturek gora egingo dute zertxobait. (euskalnet)

👁️ Jasota Bezala

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefona • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Hernani CRE-Belenos RC, arratsaldeko 15:30etan, bestela ERRUGBIA ILUNPETAN

Larunbat honetan Estatuko Senior Ohorezko B mailako partidua daukagu Landaren, hau da, maila esanguratsuko partidua. Ordua, 15:30etan. Eta burura etorriko zaigun lehen galdera hauxe izan daiteke: nola daiteke halako maila altuko norgehiagoka halako ordu txikietan jokatzea? Nor joango da baina partidu hau ikustera biztanleri erdia bazkaltzen ari denean eta beste erdia siesta hartzeko beta aztertzen? Zein asmo ilun dago honen atzean ordu-tegi hau erabakitzeke?

Ba... asmo iluna ez baina egun iluna bai, batez ere urte sasoi honetan, eta 17:00etatik aurrera. Eta arazo zaharra hauxe da hain xuxen ere, Landareko zelaietan ez dagoela behar adinako argirik txa-

pelketako partida bat jokatzeke, ez eta behar moduan entrenatzeko behar adinako argirik ere. Eta horrela, urteak eta urteak. Beraz, norgehiagokak larunbatean jokatu behar izanez gero, ba... siesta orduetan jokatu behar.

Eta egoera hau latza izanik, okerrera zera da, 2004. urtetik onartu zela zelaietako argiteria berria ezartzeko aurrekontua eta proiektua, eta itxuraz baten batek hanka sartu zuen eta baita diruz motz geratu ere. Eta zer edo zer konpondu edo aurreratu nahian, 90.000 euroko proiektu erdiari ekitea onartu genuen hurrengo batetan, baina gaur egun, duela 10 urte bezain trakets jarraitzen dugu. Izan ere, proiektu hori plenoan onartu izan ondoren, non gelditu da? Zer egin da baina diru horrekin?.

Eta bukatzeko, Sagastialdeko atletismo pista hur-

biltzerakoan izugarriko argiteria egonen da piztuta gaueko 23:00ak arte, inor ez dagoenean ezertan ordu horretan, eta berdin Latsunbeko pilotaleku txikian eta tenis pistan eta futbol txikiko pistan eta Sorgintxuloko parkean... Gure aldamenean berriz, behar den bezala Zubipe ederki argiztuta, zorionez CDHk argiteria berri daukalako.

Horrexegatik, berriro ere zera datorkit burura, gure 160 jokalariek ez ahal dute horrenbeste merezi?

Esan bezala, larunbateko partida arratsaldeko 15:30etan jokatu behar, eta entrenuak Zubipeko argiteria baliatuz, piztuta dagoen bitartean....

Untsa izan eta ARGÍ ibili.

**Joxe Kurutz
Elosegi Estebez**

❖ MUSIKA JARTZAILEAK

Musika latino gaur Apeadero tabernan

Gaur gauean dantza egiteko aukera izango da Apeadero tabernan, DJ AX musika jartzaileak latin fusion estiloko musika jarriko baitu. Gaur gaueko 22:00etatik aurrera. ||

❖ KAROBI ELKARTEA

Afaria bihar

Karobi elkartearen afaltzeko bilduko dira bihar. Iberikoak, langostinoak, arraina saltsan, entrekota, ijitu besoa izozkiarekin, edariak eta kafea izango dituzte aukeran. Hernaniko elkarte guztiak daude gonbidatuta. 21:00etan hasita. ||

❖ OLIO BILKETA

Oliao erabilia bilduko dute gaur

Erabilitako olioak bilduko du gaur ferian, San Markos Mankomunitateko furgonetak. 16:00etatik 19:30etara. ||

❖ MUSIKA

Javier Garayalde Jazz laukotearen kontzertua bihar Biterin

Javier Garayalde, Luis Jimenez, Marcelo Escrich eta Aurelio Zabalegik osatutako laukoteak, jazz emanaldia eskainiko du bihar Biterin. 20:00etan hasita. ||

Ozenki abesbatza eta Musika Bandaren kontzertua larunbatean

Gabonetako kontzertua eskainiko dute Ozenki abesbatzak eta Musika Bandak larunbatean. Imanol Kamio eta Zipri Otxandorena izango dira zuzendariak. Arratsaldeko 19:45etan, Milagrosan. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pisua salgai, azken pisua. Eguzkitsua, aszensora, ganbara... Deitu: 943 55 04 26

Taberna salgai Hernaniko kaxkoan 60m2 + almazena 30m2. Deitu: 616 383 168.

Alokatzeko: Pabiloi industrial berri-berria. 150 m2. Poligonoa: Txalaka Araneder (Astigarraga). 943 33 05 16 (20:00etatik aurrera).

Etxe berria estrenatu ezazu, hemendik 18 hilabetera, 2 logela, aszensora, 60m2 (249.000euro). Deitu: 671 124 594.

Etxe konponketak egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa.

Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropaxia, osteopatia xamura, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Antiacne tratamendua, "Manchas". Plataforma bibratzaila. **Aztieta 2, behea.** Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropaxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2).** 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologikoa eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

ANTZIOLA, 12 943 576115 HERNANI NAGUSIA, 17 943 332044

BALANTXA

-%3

ZOZKETĀ

ASTE SANTUAN LANZAROTERA

2 Lagunentzako bidaia (dena barne)

- Hotela, otordoak, edariak... -

Bidaia aldatzeko aukera

Ristretto

Arpeggio

Roma

Decaffeinato Intenso

Livrato

Capriccio

Voluto

Così

Decaffeinato

NESPRESSO KRUPS ESSENZA AUTOMATIKOA

159€

- 50€-ko TXEKEA OPARI

NESPRESSO KRUPS ESSENZA MANUALA

129€

- 50€-ko TXEKEA OPARI

PREZIO HOBERENAK

MERKEAGO AURKITZEN BADUZU PREZIO HORRETAN SALDUKO DIZUGU